

Laruzko txupa kendu zuen. Zutik jarri zen eta, platera bere burutik behera bota ondoren, kamiseta tirantedun beltza zopaz blai geratu zitzaion. Isiltasuna jangelan. Inor ez zen larritu. Inor ez zen barrez hasi. Inork ez zion errietary egin. Eta huraxe izan zen Beirerentzat okerrena, jendearen indiferentzia. Gurasoek ingelesa ikasteko barnetegi hartara bidaltzea baino amesgaizto handiagorik ezinezkoa zen. Uda hura bere bizitzako gorrotagarriena izango zela pentsatu zuen. Fuck!

Ispiluari begira, une hartan ikusten zuena ez zuen batere gustuko. Fideoek bere kamisetan “Tuntuna” hitza osatzen zutelako iruditzen zitzaion eta bat-batean azkura sentitu zuen gorputz osoan. Hotza. Biluztu egin zen, pijama jantzi eta ohera sartu zen. Sakelakoa izango balu, Leteri idatziko lioke. Leteri kontatuko zion leku hura zerua zela, aingeruz betea, eta Letek irribarreak bidaliko zizkion, malkotan, eta suzko bola bat, Letek bazekielako Beirek infernua nahiago zuela. Izan ere, Lete, Beire eta Kar ziren Sua taldeko kideak. Eskolako talderik arrakastatsuenak. Mundu guztiak miresten zuena. Mundu guztia ikaratzen zuena. Leteri eskatuko zion joateko barnetegira bere bila. Sartzeko irakasleren baten gelan eta jartzeko haren burkoaren azpian igel bat. Edo arkakusoren bat zapatetan. Pentsa-

tze hutsarekin imajinatzen zituen barrez Lete eta Kar. Kar beti barrez, noski, kar kar. Haien falta sumatu zuen. Barnetegian ez zeukan lagunik. Ez zuen lagunik egin nahi. Onartzen zuen interes txikiena ere ez ziola inork sortzen. Askoz dibertigarriagoa zen Pokemonak ehizatzea, barnetegi hartan zeuden neska-mutilekin edozertan aritzea baino.

Une hartan patioan zalaparta sumatu zuen. Oihuak. Leihoa ireki zuen, begiratzeko. Hura sinestezina zen. Zakur bat ikusi zuen, auskalo nondik ateratakoa. Jendeak zakurra inguratu zuen, zirikatzen hasi ziren, jaietako txekor bat balitz bezala. Animalia gaixoa ikaratuta zegoen, galduta, nahastuta. Zaunka hasi zenean irakasle bat agertu zen, biraoka. Irakasle hark biraoak erabiltzen zituen esaldi guztietan. Birao bakarra: fuck. Hura zen Beireri gehien gustatzen zitzaion irakaslea: Alberdi. Zakurra hartu eta alde egin zuenean isiltasuna berriz. Barnetegi hura zerua zela pentsatu zuen berriz ere Beirek. Ohean sartuta, oinak izoztuta zituela ohartu zen. Etxean egongo balitz, Balak berotuko zizkion, bere galgo ederrak. Uda hura betiko geratuko zitzaion bere memorian. Dudarik gabe.

Komunean sartuta zegoen bi neska haiek hitz egiten entzun zituenean. Ez zekien nortzuk ziren. Egia esateko, ez zuen barnetegiko jendearen izenik ezagutzen. Ez zeukan batere gogorik haiek nor ziren jakiteko. Desio zuen bakarra zen denbora ahalik eta azkarren pasatzea, berriz ere bere herrian, bere etxean eta bere lagunekin egoteko. Harremanetarako ez zen

oso trebea, ez behintzat barnetegi hartan, eta ahalegina egin behar zuela pentsatze hutsak nagia ematen zion. Nagia eta beldurra. Gainera, Beirek ez zuen inor behar. Hori errepikatzen zion behin eta berriz bere buruari. Ez zuela inoren konpainia behar. Ez zuela inorekin berba egin beharrik gustura egoteko. Ez zuela zertan jende artean egon ongi sentitzeko. Bakardadea maite zuen, ohitua zegoen, alaba bakarra baitzen. Eta bazituen lagunak ere. Hortaz, zertarako esfortzua egin adiskide berriak egiteko?

–Beire hori ezin ergelagoa da.

–Ez dut soportatzen.

–Inork ez du aguantatzen.

–Zer pentsatzen du? Besteok baino gehiago dela?

–Zopa goitik behera botatzearena umekeria bat izan da. Atentzioa deitzeko modua.

–Pena ematen dit... Hain bakarrik dago...

–Berak nahi duelako!

–Tira, goazen. Musika daukagu orain Alberdirekin, eta badakizu nola jartzen den berandu iritsiz gero.

Bi neskek ilea atondu zuten ispilu aurrean eta alde egin zuten. Beire pentsakor geratu zen. Pena hitza erabili zuen haie-tako batek. Pena. Kaka zaharra! Hori zen munduan gehien gorroto zuen hitza. Jendeari pena ematea. Pena? Ukabilkada jo zion ateari, amorruren amorruez. Mina hartu zuen eta mal-ko bat ere atera zitzaion. Aurpegia garbitu eta alde egin zuen. Alberdi zain zeukan.

–Beire, do you play any instrument? –galdetu zion irakasleak.

–No.

–Do you sing?

–No.

–Do you like dancing?

–I hate dancing.

–Anyway... Do you like music?

–Of course. But not here, in this boring place. With boring people.

–Stupid girl –esan zuen batek, isilpean. Baina Beirek entzun egin zuen, begirada zorrotza bota zion, altxatu eta gelatik atera zen.

Bazekien gelatik alde egiteak ondorioak ekarriko zizkio-la. Gurasoei deituko zietela. Gurasoak atsekabetu egingo zirela. Beirek bazekien gurasoak nekatuta zeuzkala. Bazekien ikasturte gogorra izan zela, istilu gehiegitan sartuta egon zela, irakasleak gogaituta zituela, nota askoz hobeak ateratzeko gai zela, baina, alferkeriagatik, nahikoa zitzaion aprobatarekin. Bazekien hori guztia, eta beharbada uda osoa ingelesa ikasteko barnetegi horretan pasa beharra ere merezita zeukan. Baina, halere, ez zen damutzen egindako ezertaz. Pena bakarra zuen: Lete eta Kar ez egotea berarekin. Haiek ondoan zituenean indartsu sentitzen zen, boteretsu. Eta boteretsu sentitzea hain zen gauza ederra...

Ohartu zenerako hondartzan zegoen. Barnetegia kostaldeko herrixka batean zegoen eta herri hartan bazegoen hondartza txiki bat, mendiz inguratua, harkaitz handien artean babestua. Itsaso zakarra egoten zen gehienetan, olatu bortitzak. Ihes egiten zuen guztietan bilatzen zuen babesa hondartza txiki hartan Beirek. Bazegoen harkaitz bat bereziki gustatzen zitzaiona, olatuen talka etengabea jasotzen zuena. Hantxe eserita egotea gustatzen zitzaion, itsasoari begira, inoren begietara ezkatua. Zeru beltza zegoen arratsalde hartan eta hondartza hutsik zegoen. Beirek begiak itxi zituen eta lokartu egin zen. Bereziki erraz hartzen zuen lo. Edozein lekutan, edozein momentutan. Gurasoek medikutara ere eraman izan zuten, pentsatuz gaitzen bat izango zuela. Baina, egindako proba guztien arabera, Beirek ez zuen ezer, ez behintzat diagnostika zitekeen ezer. Eskolako orientatzailearen iritziz, mundutik babesteko estrategia zen lokartzearena, automatikoki egiten zuena, ia inkontzienteki, errealitatetik ihes egiteko. Bada, arratsalde hartan ere, harkaitz haren gainean begiak itxi eta lokartu egin zen Beire. Olatu baten zipriztinak esnatu zuen.

–Ostia! Noiz igo da marea? –ingurura begiratu zuenean ohartu zen ez zegoela modurik hondarretara joateko.

Harkaitz gainean zutik jarri zen, alde batera eta bestera begiratu. Ea norbait ikusten zuen. Laguntza behar zuen handik ateratzeko. Une batez pentsatu zuen igeri egitea, baina olatuek indar gehiegi zuten, uretan sartuz gero bertan itoko zen. Larritu egin zen eta oihuka hasi. Alferrik, bere oinazearen oihartzuna soilik entzun zitekeen inguruan. Olatuen gatza

begietan sartu zitzaion eta oihu egiterakoan baita ahoan ere. Eztarrian behera, gatzak erraiak erretzen zizkion. Beldurrak. Damu guztiak batera etorri zitzaizkion orduan, egindako guztien damuak, egin ez zituenak, gurasoak, eskolakideei esandako gezurrak, biraoak, gaizki tratatutako haiek guztiak... Eta damu haiek itota hilko zela pentsatu zuen.

–Ei! Eeeeeeeeeeeeeeeeeeei!

Norbait deika ari zitzaion. Goiko aldean, pertsona bat zuen oihuka. Mutil bat.

–Saia zaitetz eskalatzen! Hemen goitik atera zaitetzke!

–Ezin dut! –esan zion Beirek, izututa.

–Ez da horren zaila!

–Ezin dut! –berriz ere Beirek, etsita.

Orduan, mutila mendian behera hasi zen jaisten, haitzen artetik, poliki-poliki.

–Nik lagunduko dizut! Zatoz gora! Bide erdian elkartuko gara! –egin zion oihu Beireri.

Eta mutilak eskua luzatzen ziola ikusita, Beirek eskua harri batean jarri zuen, oina beste batean, eta poliki-poliki hasi zen gora. Beire gora eta mutila behera. Gora bat eta behera bestea. Bata bestearengandik geroz eta gertuago. Halako batean, eskua jarrita zuen harria askatu egin zen, Beirek irrist egin zuen eta ia erori zen, baina ordurako mutila ondoan zeukan eta bere eskuaz eutsi zion neskaren besoari. Batak besteari lagunduz, poliki-poliki, oinak eta eskuak behar ziren harrien gainean jarriz, mendi maldaraino igotzea lortu zuten. Biek zituzten



eskuak odoletan. Beirek begiak malkotan. Mutilak irribarre egin zion.

–Lasai, neska. Dena ondo atera da.

–Mila esker.

Eta ezustean, inoiz inori eman gabeko besarkadarik estuena eman zion Beirek mutil hari. Bere salbatzaileari.

–Beire deitzen naiz. Nor zara zu?

–Baba, ni Baba naiz.